

KOSTUEN EGITURA

Argi eta garbi dago 'Bello Tempo' enpresak produktuak sortzeko nahiz enpresa bera aurrera atera ahal izateko inguru fisiko batean kokatu behar garela. Alegia, egoitza nagusi bat behar dugu, non enpresaren nondik norakoak kudeatzeaz gain 'Biancaneve' produktua ere sortuko dugun.

Ildo beretik, ezarritako helburuak lortu ahal izateko gastu konkretu batzuk asebate beharko ditugu. Gastu hauek bi motetan sailkatuko ditugu alde batetik gastu finkoak eta gastu aldakorak.

Gastu finkoetan hainbat gastu desberdin ditu gure enpresak. Lehenik eta behin, argiarengatik 600€ inguruko faktura edukiko dugu eta kalitate kontrola egingo duen langilearen soldata 2000€-koa izango da. Horrez gain, hasieran ordainduko ditugun; herramienta, armairuak, ordenagailuak eta diseñadorea ordaintzeko kreditoa ordaintzeko hilean 90€ ordainduko ditugu.

Hala ere, badaude muxutruk eskuratuko ditugun produktu edota baliabideak, hasieran asko lagunduko diguna gure enpresaren gastuak baxuagoak izaten. Horren adibide garbia dira ozonizatzailea eta lokalaren alokairua familiako kideengandik eskuratuko ditugun baliabideak. Gainera, webgunea guk geuk bai sortu baita kudeatu ere egingo dugu, teknologiako arloan ditugun ezagutza nabariei esker.

Esandakoa esanda, gure enpresak baliabide guztiak eskuratu ahal izateko hileroko 2780€ko gastu finkoa izango du.

Gastu aldakorretan hainbat gastu desberdin ditugu. Lehenik eta behin, ispilua egiteko beharrezkoak diren baliabideak erosi beharko dugu. Ispiluaren markoa (50€), ispiluaren pantalla (400€) eta beharrezko juntak (100€).

Esandakoa esanda, baliabide guztiak eskuratu ahal izateko ispilu bakoitzagatik 550€ko gastua izango dugu.